

Gertuan Fundazioa Memoria 2022



Gipuzkoan babesgabetasun egoeran dauden eta adimen edo garapen-desgaitasuna duten pertsoneri tutoretza izaerako laguntzak ematen dizkiegu.
Morlans Pasealekua 14 Behea | 20009 Donostia | 943 05 10 95 | gertuanfundazioa@gertuanfundazioa.eus

Esku artean duzu 2022ko memoria. Fundazioak aurten egin dituen jardueren laburpena da honakoa.

*Beste behin ere, Gipuzkoan desgaitasun intelektuala edo garapenekoa duten pertsonen babesa ematea izan da gure lanaren ardatza. Eta horrela jarraitzen dugu esku-hartzen, **axola diozun norbait edukitzea** lelopean.*

2022. urtea ziurgabetasun ekonomiko handiko urtea izan da. Gainera, 8/2021 Legea indarrean sartu zenetik, egokitzapenak egin behar izan ditugu gure prozesuetan, horregatik prestakuntza- eta aholkularitza- jarduerak areagotu behar izan ditugu.

Talde profesionalaren eta patronatua osatzen duten pertsonen konpromisoari, ahaleginari eta dedikazioari esker; eta fundazioarekin kolaboratzen duten boluntarioek emandako laguntzari esker, 2022rako planteatu ditugun helburuen lorpenak hein handi batean bete direla esan dezakegu, horregatik, balantze positiboa egiten dugu.

Aurten etorkizuneko hiru konpromiso sinatu dira hiru familiekin eta hori ere nabarmendu nahi genuke. Familiek, kezka handia izaten dute, hauek ez

*audenean desgaitasuna duten senideari laguntzak nork eskainiko ote dizkion. Konpromiso horiekin familiek euren senitartekoarekiko duten kezka samurtu edo nolabait konpontzeko aukera izan dute, izan ere horrela, **Gertuan Fundazioak** konpromisoa hartu du haien senideari beharrezko laguntzak emateko, baita senitartekoa bakarrik egongo ez dela bermatzeko ere.*

*Amaitzeko, lerro hauek baliatu nahi nituzke **Gertuan Fundaziotik** elkarlanean aritzen garen baliabide/eragile guztien talde lan ona eta koordinazioa eskertzeko. Egoitza- edo etxebizitza-baliabideak, okupaziokoak, enpleguak, eguneko zentro eta partaidetza sozialekoak, baita toki-erakunde eta **Gipuzkoako Foru Aldundia** eskertzeko ere baliatu nahi nituzke lerrook, gure helburuak lortzeko lankidetzak eskaini baitigute.*

Besarkada handi bat,

Inma Hernández León
Gertuan Fundazioko Presidentea



“Axola diozun norbait
edukitzea”



Gertuan Fundazioa

Urte honetan, tutoretzaren arloan egin berri diren lege erreforma eta **New Yorken (AEB) onartutako Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioarekin** bat etorriz, **Gipuzkoan babesgabetasun-egoeran dauden eta adimen- edo garapen-desgaitasuna duten pertsona helduei tutoretza-izaerako laguntzak ematen jarraitu dugu.**


Nazioarteko tratatu horren 12. artikuluan, desgaitasuna duten pertsonen ere, bizitzaren alderdi guztietarako gainerako pertsonen gaitasun juridiko bera dutela aldarrikatzen da. Horren helburua pertsona guztien erabateko autonomia baldintza beretan babestu eta bermatzea da, duintasun osoz errespetua sustatuz.

Gure esku-hartzea, gaitasun juridikoa gauzatzeko pertsona bakoitzaren beharretara egokitutako laguntza-sistema bat ezarri ondoren zehazten da. Laguntza-sistema horretan, epaileak zehazten du zer laguntza behar duen eta zeinek eskainiko dion. **Laguntza horiek beti pertsonaren beharren arabera izan behar dute, betiere bere borondatea, nahiak eta lehentasunak errespetatuz.**

Ildo horretan, **desgaitasuna duten pertsonen beren bizi-ibilbideei buruzko erabakiak hartzerako orduan laguntzen jarraitzen dugu, euren proiektu pertsonala lortzen lagunduz.** Horretarako, **pertsona bakoitza bere ibilbidearen protagonista izatea dugu helburu, autonomia pertsonala sustatuz.**

Urte honetan, lege erreformak eskatzen duen bezala, 8/2021 legea indarrean jarri aurreko epaiak berrikusten hasi dira epaitegiak. Une honetan, 21 espediente dira berrikuste prozesuan daudenak, eta datozen hilabeteetan zehaztuko zaizkie gaitasun juridikorako laguntza-neurriak, horrela baldin badagokie.

Bestalde, pandemia osteko normaltasunera itzultzeak koordinazio lanak areagotu ditu etxebizitza-baliabide, parte-hartze sozial, baliabide-okupazional eta enplegu arloko baliabideekin. Errekurtso horiek gehienak **Gipuzkoako Foru Aldundiarekin** hitzartutakoak dira, eta erreferentziatzeko hainbat erakundek kudeatzen dituzte. **Erakunde hauei guztiei, berriz ere, asko eskertu nahi diegu beren konpromiso eta dedikazioa: Atzegi, Gautena, Aspace, Goyeneche Fundazioa, Uliazpi Fundazioa, Aita Menni, Gureak, Ortzadar, etab.**







JOSEMI ALBIZU ARRIZUBIETA
(1958, Donostia)

- Noiztik duzu harremana fundazioarekin?

Aita hil ondoren, 2015ean nire egoera azaltzeko Atzegirekin harremanetan jarri nintzen. Fundazioarekin harremanetan jarri ninduten, eta ordutik Idoiarekin (erreferente teknikoa) harremanetan nago eta egunerokoan laguntzen didate.

- Zertan laguntzen dizu fundazioak?

Zerbait hartu eta hitz egiteko geratzen naiz. Historiaz aritzen gara berriketan, baina arazotxoaren bat dudanean ere bai.

Bakarrik bizi naiz eta laguntza behar dut janariarekin. Nik ez dakit janaria prestatzen, baina badakit frijitzen eta berotzen, horregatik pertsona bat aurkitzen lagundu didate, lehen platerak prestatzeko eta etxean laguntzeko.

Oporretan joaten ere laguntzen didate. Liburutegira joan ohi naiz egunerokotasunean eta igande arratsaldetan, talde batekin ateratzen naiz. Buelta bat emateko geratzen gara, zerbait hartzen dugu, batzuetan bidaian joaten gara.

Diruaren gaian ere laguntzen didate. Nik ez dut askorik behar: tabakoa, egunkaria, ogia, harategian erosteko... Ez naiz oso exijentea zentzu horretan.

- Zer harreman duzu fundazioarekin eta zure erreferente teknikoarekin?

Segurtasuna, konfiantza eta lasaitasuna ematen dit, eta izugarria da hori. Dagoeneko ez naiz bakarrik sentitzen, badakit nire berri duen lan-talde bat daukadala eta horrek lasaitasuna ematen dit. Lur planetan ez dago urrerik hori ordaintzeko. Ni oso lasai nago eta bera hor dagoela jakiteak, asko balio dit.

Gure lan taldea

**Gertuan Fundaziotik adimen- edo garapen-
desgaitasuna duten pertsonen ongizatea
bermatzeko laguntzak eskaintzen jarraitzen
dugu**, hauen autonomia eta independentzia
pertsonala sustatzeko behar dituzten laguntzak
emanez.

Horretarako, **honako hauek osatzen duten giza
taldea izan dugu:**

- 14 patronatukide.
- Fundazioko kide diren 12 profesional.
- Fundazioak kontratatutako kanpo zerbitzuetako profesionalak (aholkulari juridikoak, auditoreak, kontsultorak, etab.).
- 46 pertsona boluntario.





Gertuain

Fundazioa

Gertuan Fundazioko boluntariotza

Boluntariotzak **funtsezko zeregina** du gure Fundazioak eskaintzen dituen laguntza ereduan.



Boluntarioek aktiboki parte hartzen dute gure fundazioaren misioan, laguntzen diegun pertsona bakoitzarekin harreman pertsonala sortu eta mantenduz, konpromiso etiko eta solidarioz, haien gaitasunak eta ongizate emozionala indartuz.

Laguntza hauek indibidualak izan ohi dira, eta bi

pertsonen hauen arteko harremanak, laguntza naturalen sarea hobetzen laguntzen du. Horrela adimen desgaitasuna edo garapen desgaitasuna duen pertsonak, harreman sozial esanguratsuak izatea lortzen da. Boluntarioak desgaitasuna duen pertsonarekin sortzen duen harremana oso adierazgarria eta garrantzitsua da bi aldeentzat.

2022ko abenduaren 31n, 46 boluntario zeuden fundazioan.

Boluntarioak 2022





2022ko mugarri nagusiak

GERTUAN FUNDAZIOAREN
EGOITZAREN INAUGURAZIOA

LAN HARREMANEN
MARKO BERRIA

2022ko urtarrilean pandemiaren murrizketek aukera eman bezain pronto, **Gertuan Fundazioaren** egoitza berriaren inaugurazio-ekitaldia egin genuen, **Donostiako Morlans pasealekuko 14. zenbakian**. Ekitaldi hunkigarria izan zen, eta bertan izan ziren **Gipuzkoako Foru Aldundiko** diputatu nagusia, gizarte-politikako diputatua, **Atzegi** erakunde fundatzailearen presidentea, desgaitasunaren arloko erakunde nagusien ordezkariak, patronatua, desgaitasuna duten pertsonak eta **Gertuan Fundazioa** osatzen duten profesionalak.

Urte honetan, fundazioaren patronatuak **Gertuan Fundazioaren** hitzarmen kolektiboaren marko-dokumentua onartu du, eta **oraingo eta etorkizuneko oinarriak** ezarri ditu. Ikuspegi juridiko, aurrekontu eta egitura profesionalak oreka izatea helburu duen dokumentua da, eta fundazioak profesionalekin dituen lan-harremanak, gure errealitatera egokituta arautzen dituen marko-dokumentua da.



1983

nasce il
Prodotto Verde Along
Per la promozione degli
alimenti.



2006

Industria di
Bellezza e Salute
che unisce il
benessere fisico e
mentale.

2021

nasce il
Prodotto Verde
e il nuovo
ambasciatore
della Bellezza.



ERREFORMA ZIBILAK ETA PROZESALAK ELKARTE-MUGIMENDUETAN IZAN DUEN ERAGINARI BURUZ LIBER ELKARTEAK ANTO-LATUTAKO JARDUNALDIA, (LEHEN, ESPAINIAKO TUTORETZA FUNDAZIOEN ELKARTEA) ANTOLATUA

Berriz ere, parte hartu dugu **Liber** fundazioak (lehen **Asociación Española de Fundaciones Tutelares** deiturikoa) antolatzen duen erakunde desberdinetako arduradunen jardunaldian. Jardunaldi horretan, 8/2021 Legeak, hau indarrean sartu ondotik zer aplikazio praktiko izan duen eztabaidatu genuen eta erakundea osatzen duten fundazioek ditugun etorkizuneko erronkei buruz aritu ginen.

Topaketa horretan Estatuko erreferentziazko hainbat fundaziok, desgaitasunen bat duten pertsonak eta **Plena Inclusión** erakundeko ordezkariak hartu zuten parte. Agerian geratu zen lege berriaren aplikazio praktikoak nola eragiten dien desgaitasuna duten pertsonari eta haien familiei.

GERTUAN FUNDAZIOAKO BOZERAMAILE TALDEA SORTZEA

Aurten, bozeramaileen taldea sortu dugu, **Gertuan Fundazioak** sortutako gunea, adimen- eta garapen-urritasuna duten pertsonak, erakundeak lagundutako hausnarketa eta eztabaida topaketak egin ditzaten, desgaitasuna duten kolektiboaren eskubideak defenda ditzaten.

Gune honetan eguneroko bizitzan aurki ditzaketen oztopoei aurre egiteko, eta ahalik eta bizimodu independente eta autonomoena izateko erabakiak hartzeko elkar laguntzen dira.

Foro honetan, beren ahotsa eta iritziak kontuan hartzen dira, eta bide-orri bat ezartzen da erakundearen gobernu-organoa den patronatuari bertako proposamenak helarazteko.

GIPUZKOAKO IV. FORO JURIDIKOAN PARTE HARTZEA

GERTUAN FUNDAZIOAREN PLAN ESTRATEGIKOA EGITEA

2022ko irailean, **El Diario Vasco** egunkariak antolatutako **Eskubide gehiago desgaitasuna duten pertsonentzat** izenburua zuen jardunaldi batean parte hartu genuen.

Ekitaldi horretan hainbat adituk hartu zuten parte, baita eragile sozial eta eragile juridiko, **Eusko Jaurlaritzako** arduradun instituzional, **Hurkoa** eta **Gertuan Fundazioko** kideek ere.

Gertuanetik Josetxo Izagirrek hitz egin zuen fundazioko erreferentearekin batera. Lehen pertsonan azaldu zuten fundaziotik zer laguntza ematen dizkiogun, eta nola berrikusi zuten bere prozedimentua lege berria indarrean sartu geroztik.

2022ko urrian, **Gertuan Fundazioaren** 2023-2028 plan estrategikoa egiteko prozesuari ekin genion. Hilabete batzuk beharko ditugu prozesu hori gauzatzeko baina 2023an argitaratzea espero dugu.

Datozen 5 urteetarako ildo estrategikoak eta ekintza-planak ezartzeko eta ebaluatzeko plan estrategiko prozesuan parte hartu dute fundazioko profesionalek, desgaitasuna duten pertsonak, boluntarioek, patronatuko kideek, erakunde fundatzaileak, foru-aldundiak eta desgaitasuna duten pertsonen familiek.





Prestakuntza Etengabeko hobekuntza

Gure laguntzak ahalik eta modu eraginkorrean eskaintzeko helburuarekin, **Gertuan Fundazioa** profesional eta patronoek hainbat prestakuntza-jardunalditan parte hartu dute. Besteak beste, honako hauek:

- **“Bizitza zentroan, pertsonalizatzeko modu berriak asmatuz”** jardunaldia.
- **“Dolua eta desgaitasuna duten pertsonak”** jardunaldia.
- **“Adimen eta garapen-desgaitasuna duten pertsonen autonomia baloratzea, babestea eta errespetatzea: ikuspegi etikoa”** jardunaldia.
- **“Esku hartzea ikuspegi etiko batetik”** jardunaldia.
- **“Irakurketa erraza”** jardunaldia.
- **“EAEko hirugarren sektoreko erakundeen balioa”**ri buruzko jardunaldia.
- **“Erabakiak hartzen laguntzeko eta adimen-eta garapen-desgaitasuna duten pertsonen ordezkariak gauzatzerako orduan, kontuan hartu beharreko alderdi etikoak”** jardunaldia.
- **“Adimen - desgaitasunaren eta garapenaren definizio berria, AAIDD adimen-desgaitasunaren eta garapenaren Amerikako elkar-tearen arabera”** jardunaldia.
- **Talde-lana eta erabakiak hartzen laguntzeko** jardunaldia.
- **“Borondatezko laguntza-neurriak eta beste notario-egintza batzuk”** jardunaldia.
- **“Gure lan-eredua legegintza-esparru berrira egokitzeari buruzko”** jardunaldia.
- **“Erabateko kalitatea, Plena Inclusión Euskadirekin”** jardunaldia.
- **“Ahalmen juridikoa gauzatzean desgaitasunaren bat duten pertsonen laguntza ematen dieten erakundeak eraldatzeko proiektuari”** buruzko jardunaldia.

- **“Bizitzaren azken etapan laguntzeari”** buruzko jardunaldia.
- **“Zahartzaro onari”** buruzko jardunaldia.
- **“Adimen- eta garapen-desgaitasuna duten pertsonak ordezkatzeko erabakietarako etikari”** buruzko jardunaldia.

Era berean, abenduan, hizlari gisa parte hartu genuen **Donostiako Deustuko Unibertsitateko** zuzenbide-fakultateko 1. eta 2. mailako ikasleentzat antolatutako jardunaldi batean, 8/2021 Legeari buruz eztabaidatzeko. Lege horrek, desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoaren inguruko lege zibil eta prozesala aldatu du.

Jardunaldi hauetan desgaitasuna duen pertsona batek eta fundazioaren zuzendaritzak parte hartu zuten.







Nor arduratuko
da nire seme-alabez,
ni ez nagoenean?

2022ko abenduaren 31n, adimen- edo garapen-
desgaitasuna duten pertsonen senideen artean
eta **Gertuan Fundazioa**rekin formalizatutako
etorkizuneko konpromisoak 37 izan dira guztira.

2022an etorkizunerako 3 konpromiso berri sinatu
ditugu eta, aldi berean, 3 baja izan ditugu.

37 ETORKIZUNEKO KONPROMISOAK

«...Nor arduratuko da nire seme-alabez, ni ez nagoenean...»

Gertuan datuetan


2022an zehar, 183 pertsona artatu ditugu.

183


pertsona

155 Neurri Judzialen Sistema.
6 Beste Figura Juridikoak.
22 Pretutelak / Balorazioan.


Izendatutako kasuen kargu judzialak 2022.




Izendatutako kasuak adinaren arabera 2022.



Izendatutako kasuak generoaren arabera 2022




Izendatutako kasuen bajak 2022






Azken 10 urteetako altak eta bajak 2012 - 2022.




Kargu judizialak dituzten izendatutako kasuak.
Fundazioarekin egon diren denboraren arabera.







Modu independentean eta egoitza-baliabidean bizi diren izendatutako kausen eboluzioa 2022.



Memoria ekonomikoa 2022

Lege berrira egokitzeak sortu duen ziurgabetasun urtea izan bada ere, arlo ekonomikoari dagokionean, ekitaldia aldeko balantzearekin itxi ahal izan dugu.

Modu positiboan nabarmendu behar da **Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politiketako Departamentuak** ematen duen laguntza ekonomikoa, ezinbestekoa baita egitura profesionalari eusteko. Horrela, lege-errealitate berrira pixkanaka egokitzeko aukera izan dugu; izan ere, lege erreformak, prestakuntza-, aholkularitza- eta administrazio-lanak areagotzea ekarri du.

Bestalde, **Laboral Kutxa, Donostiako eta Irungo udalek** 2022an gure erakundeari emandako laguntza ekonomikoa azpimarratu behar da.



...rekin itundutako programa.

Emaitzen kontua

	2022	2021
Jarduera propiagatikako erakundearen diru sarrerak	607.139 €	553.734 €
Ustiapeneko beste diru sarrera batzuk	39.084 €	33.674 €
Pertsonal gastuak	481.371 €	446.809 €
Ustiapeneko beste gastu batzuk	131.820 €	132.984 €
Ibilgetuaren amortizazioa	42.896 €	35.042 €
Ekitaldiko emaitzara transferitutako kapital diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	21.122 €	44.184 €
USTIAPENAREN EMAITZA	11.258 €	16.757 €
FINANTZA EMAITZA	-1.547 €	674 €
EKITALDIKO EMAITZA	9.711 €	-5.877 €

Kontu hauek, Sayma Auditores S.L. kanpo enpresak, 2023ko martxoan auditatutako kontuak izan dira.

Partaide garen erakundeak:

liber Asociación de entidades de apoyo a la toma de decisiones

FEVAS
Plena
inclusión
Euskadi

Adimen eta/edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen hurrengo familia-elkarteekin egiten dugu lan:



Aspace
Gipuzkoa



ATZEGI



GAUTENA